

Herrien frantsesezko izendapen panelak ezabatu ditu U14 kolektiboak

KAZETA.EUS :: 13/07/2023

Bihar frantziar besta nazionalaren kontrako manifestazioa deituta dago.

Ipar Euskal Herriko hainbat herriren sartzean, frantsesezko izenak dituzten panelak espraiarekin tapatuak dira uztailaren 10arekin abiatu den aste hastapenetik. Egiletza aitortu du U14 kolektiboak, uztailaren 14ko frantziar besta nazionalen manifestatzeko deia egitearekin batera.

Joan den urteko udan euskarazko panelak frantsezkoei gainetik ikusi ahal izan zituzten herritarrek, Herribiltzaren deia jarraiki, euskara lehenesteko ekintza sinboliko hau gauzatu baitzuten. Oraingoan, uztailaren 10arekin abiatu den astean Ipar Euskal Herriko hainbat herrien frantsesezko izendapena ezabatua agertu da, spray beltz zein gorriaren bidez. U14 kolektiboak sare sozialetan hedaturiko bideo baten bidez jakinarazi du uztailaren 11n bera dela egilea.

Hain zuzen, «asimilazioaren aitzinean antolatze» deia erantzunen lioke ekintzak, frantziar Estatuaren besta nazionala ospatuko den astean. Arrangoitze, Hendaia, Hazparne, Arbona, Aiherra, Senpere, Ezpeleta, Lekuine, Donibane Lohizune, Luhuso... ainitz dira une honetan soilik euskarazko izendapena duten herriak, hauen sartzetako paneletan behintzat.

Aitzineko egunetan «independentzia eta sozialismoa» aldarrikatzen dituen murala osatu zuten ere. Euskal nazioaren defentsan ari den gazte kolektiboak aldarri bera eramanen du Donibane Lohizuneko karriketan gaildi uztailaren 14ko egunean. Hirugarren urte kontsekutiboz, besta eguna baino, Euskal Herrian «borroka eguna» dela azaldu nahi dute, 18:00etan Didier Lafitte plazatik abiatuko den manifestazioaren bidez. «Frantziar zein espainiar estatu zapaltzaileen aitzinean, borrokaz aska dezagun herria» deia luzatu diete herritarrei.

<https://eh.lahaine.org/herrien-frantsesezko-izendapen-panelak-ezabatu>